

## OROZKOKO KIROLDEGIKO JOKALEKUAK ERABILTZEKO ARAUAK

### 74. artikulua.—Deskribapena

Kiroldegizat jotzen dira gutxienez kirol anitzerako estalitako jokaleku bat eta dagozkion arropazaindegi zerbitzua, dutxak eta aldagelak dituzten instalazioak.

### 75. artikulua.—Sarrera

Kiroldegietara harpidedun txartela edo erabiltzaile kirolariaren txartela aurkeztuz sartuko da, eta sarrerako kontrolean kasu bakoitzean dagokion alokairu-tasa ordainduta.

### 76. artikulua.—Araudi berezia

a) Erabiltzeko ordutegia Orozkoko Udalak zehazten duena izango da, instalazioen ordutegi orokorren arabera eta ezarritako prezioak ordainduta.

b) Jokaleku horien xedea funtsean eta lehentasunez erabiltzaileek talde-kirolak egitea izango da, hala nola, futbitoa, saskibaloia, eskubaloia, boleibol, tenisa eta gaur egungo egiturak ahalmentzen dituen guztiak.

c) Gehienez ere ordubetez (1) erreserbatu ahal izango dira.

d) Jokalekura soilik arropa eta kirol oinetako egokiak jantzita sartuko da.

e) Jokalekuan sartzeko eta jokalekua uzteko ordua benetan erreserbatu dena izango da; jokalekua ezingo da beroketak egiteko eta abar hartu.

f) Txapelketa ofizialak direnean, jokalekuan ordu-laurden lehenago sartu ahal izango dira beroketak egiteko, eta txapelketa amaitzen den unean jokalekutik atera beharko dute.

g) Kirola egiteko ateak, saskiak, zutabeak eta gainerako osagarriak, mugikorak, behar bezala ipini eta kenduko dituzte erabiltzaileek, eta horretarako kiroldegiko langileen aholkularitza izango dute.

Talde bakoitzak kiroldegi bakoitzean uzten duen materialak klubaren jabetzako saski, sare edo poltsetan jasota egon beharko du, eta instalazioak ez du horien ardura hartuko.

h) Udalerriko ikastetxeek jokaleku horiek erabiliko dituzte eskola-ordutegian, ikastetxeko zuzendaritzarekin akordioa egin eta Orozkoko Udalarekin izenpetutako hitzarmenean finkatuta eta aurrez udal horretako Hezkuntza Arloak txostena egin ondoren.

i) Ikastetxe horiek jokalekuak eskola-ordutegitik kanpo ere erabili ahal izango dituzte, aurrez ikastetxeko Guraso Elkarteko zuzendaritzarekin erabakita eta Orozkoko Udalaren eta ikastetxearen artean sinaturiko hitzarmenean finkatuta.

j) Kirola egiteko soilik kirol oinetako eta jantzitan sartu ahal izango da jokalekuetara; debekatuta dago gomazko zolarik ez duten oinetakoak erabiltzea.

k) Erabili beharreko aldagelak Atezaindegian adieraziko dira, edo dagozkien seinaleztapenen bitartez.

l) Erabiltzaileak zein zigorretan eror daitezkeen alde batera utzita, jokalekuetako material eta ekipamenduen erabilera desegokia arduradunak zigortzeko gai izango da, gutxienez eragindako kalteak ordaintzeko eskatuz.